

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2.507 langabe gutxiago izan da Nafarroan apirilean, azken 10 urtetako jaitsiera handiena

46.370 langabe daude orain, aurreko hilean baino % 4,25 gutxiago, eta 2014ko apirilarekin alderatuz, 4.375 pertsona gutxiago dago lanik gabe (% 8,62)

Martes, 05 de mayo de 2015

46.370 langabe erregistratuta zeuden

Nafarroako Zerbitzuko Enplegu Agentzietan iragan apirilaren amaieran, hau da, aurreko hilean baino 2.057 gutxiago (-% 4,25), 48.427 langabe baitzeuden orduan, azken 10 urteotako jaitsiera handiena. 2014ko apirilaren aldean, 4.375 pertsona gutxiago dago lanik gabe, -% 8,62 balio erlatiboetan.



2.057 langabe gutxiago izan dira apirilean.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaile Imelda Loreak aipatu duenez, apirilean "azken 10 urteotako langabezia-jaitsiera handiena izan da". Gogora ekarri du ohikoa dela langabezia behera egitea apirilean, eta, "beraz, garrantzitsuena joera finkatzen dela da: urte arteko datuek 19 hilabetez jarraian jaisten segitzen dute dagoeneko, duela urtebete baino 4.375 langabe gutxiagorekin. Horrek langabezia murrizteko ahaleginean lehenetsunez lan egiteko adorea ematen digu".

Datuak zehatz-mehatz aztertuta, NEZko kudeatzaileak uste du langabeziaren jaitsierak eragina izan duela "arlotan ekonomiko ia guztietan". Kontratazioari dagokionez, "bere jokabide ona" azpimarratu du eta, bereziki, "2015eko apirilean kontratuen kopuruak % 16,57 egin duela gora iazko hilabete beraren aldean".

Enplegu-agentzien arabera, langabeziak guztietan egin du behera: Lodosan (-% 13,3), Lizarran (-% 4,73), Tuteran (-% 4,61), Iruña-Arrotxapean (-% 3,89), Donezteben (-% 3,63), Altsasun (-% 3,47), Iruña-Zabalgunean (-% 3,02), Iruña-Yamaguchin (-% 2,78) eta Agoitzen (-% 1,34).

Jarduera ekonomikoaren arabera, honako sektore hauetan langabeziak izandako jaitsiera azpimarratu behar da: elikaduraren industrian (-283 pertsona), eraikuntzan (-231); nekazaritzan (-208 pertsona); nekazaritzan (-208 pertsona); janari eta edarien zerbitzuetan (-199 pertsona); enpleguari lotutako jardueretan (-142 pertsona);

administrazio publikoan (-126 pertsona) eta txikizkako merkataritzan (-102 pertsona).

Sexuaren arabera, gizonezkoen langabezia % 5,92 jaitsi da (-1.333 gizon) eta baita emakumezkoena ere, % 2,79, (-724 emakume); 21.169 eta 25.201 pertsona daude orain lanik gabe, hurrenez hurren.

Adin-taldearen arabera, langabezia % 4,52 jaitsi da 25 urtetik gorakoaren artean, eta orain 41.766 pertsona daude lanik gabe; 25 urtetik beherakoaren artean, berriz, 4.604 pertsona (% 1,67 gutxiago).

Kontratazioa

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan 26.043 kontratu erregistratu dira 2015eko apirilean, hau da, aurreko hilean baino 506 gehiago. Erregistratutako kontratuen artean, 1.420 mugagabeak izan dira, hots, erregistratutako kontratu guztien % 5,45. 2014ko apirilarekin alderatuz, kontratuen kopuruak % 16,57 egin du gora.

Sexuaren arabera, 12.741 gizonek (martxoan baino 687 gehiago) eta 13.302 emakumek (martxoan baino 181 gutxiago) kontratu bat sinatu zuten. Adin-taldearen arabera, contratazioa honako era honetan banatu da: 3.801 kontratu 25 urtetik beherakoaren artean (iragan hilean baino 336 gehiago), 25 eta 44 urte arteko langileek sinatutako 15.816 kontratu (martxoan baino 91 gutxiago) eta 45 urtetik gorakoek sinatutako 6.426 kontratu (261 contratazio gehiago).

Jarduera-sektoreen arabera, 16.017 pertsonak sinatu zuten zerbitzuen sektorean (martxoan baino 222 gutxiago), 7.873k industrian (martxoan baino 174 gehiago), 886k eraikuntzan (martxoan baino 85 gehiago) eta 1.267 pertsonak nekazaritzan (aurreko hilean baino 469 gehiago).